

2/98 IRIZPENA**ENPLEGU SORGUNE BERRIETAN BILDURIKO ENPRESAK MARTXAN JARTZEKO
LAGUNTZAK ARAUTU DITUEN DEKRETUARI BURUZKO IRIZPENA**

Ekainaren 27ko 9/1997 Legeak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari eratzikitako eskumenekin eta haren Funtzionamendu Araudian ezarritako prozedurarekin bat etorririk, eta Osoko Bilkurak 1998ko uztailaren 1eko akordioaren bitartez eskuordetuta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Batzorde Iraunkorrak, 1998ko uztailaren 22ko bileran, aho batez honako hau onetsi du:

IRIZPENA**1.- AURREKOAK**

1998ko ekainaren 29an sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia. Idazki horren bitartez, sail horrek Enplegu Sorgune Berrietan bilduriko enpresak martxan jartzeko laguntzak arautu dituen Dekretuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk.

Dekretu horrek apirilaren 8ko 71/1997 du oinarri. Azken dekretu horren bitartez lehenengo aldiz arautu ziren Enplegu Sorgune Berrietan bilduriko enpresak martxan jartzeko laguntzak.

1998ko uztailaren 1ean eman zitzairen Eusko Jaurlaritzatik jasotako dokumentazioaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei.

Halaber, 1998ko uztailaren 1ean Kontseiluaren Osoko Bilkurak beharrezko txostena onesteko ahalmena Batzorde Iraunkorrari eskuordetzea erabaki zuen.

1998ko uztailaren 1ean lan-bilerara bildu zen Gizarte Garapenerako Batzordea. Irizpen-proposamena egin zuen. Proposamen hori Batzorde Iraunkorrari bidali zitzaion eta batzorde iraunkor honek, 1998ko uztailaren 22ko bileran, hura aho batez onetsi zuen.

II.- EDUKIA

Enplegu Sorgune Berrietan bilduriko enpresak martxan jartzeko laguntzak arautu dituen Dekretuaren testuak honakook ditu osagai: zioak erakustea, hamazazpi artikulua, Xedapen Gehigarri Bakarra eta lau Bukaerako Xedapen.

Zioak erakustea:

Aurretiko erakusketan adierazita dago Enplegu Sorgune Berrietan bilduriko enpresak martxan jartzeko laguntzak arautu dituen Dekretua indarrean 1997an jarri dela.

Beste alde batetik, bertan adierazita dago nola ezarri duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretuak dirulaguntzak araupetzen dituzten arauak izan behar duten gutxieneko edukia. Hori dela eta, aurkeztutako Dekretuak gauza berri horiek sartu ditu. Aipatutako Legegintzazko Dekretuaren bitartez onetsi ziren Euskal Herriko Ogasun Orokorraren Abiaburu Antolatzaileak.

Artikulu eta xedapenak:

1. artikulua Dekretuaren helburua zehazturik du. Dekretuaren helburua honako hau da: Eusko Jaurlaritzak Enplegu Sorgune Berrietan bilduriko enpresak martxan jartzeko laguntzak araupetzea. Enpresa horiek abiaraztea sustatuko da, baldin eta enplegua sortzen badu. Enplegu Sorgune Berriak zehazturik ditu artikulua horrek.

2. artikulua Dekretuan dauden laguntzak jaso ahal dituzten erakundeak zehazturik ditu.

3. artikulua zehaztuta daude erakunde onuradunek laguntzak atzitzeko bete behar dituzten beharkizunak.

4. artikulua zehaztuta daude dirulaguntzen zenbatekoa eta **5. artikulua** zehaztuta dauden koantifikazio-irizpideen arabera kontutan hartzen diren laguntzak.

5. artikulua dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko ezarritako irizpideak zehazturik ditu.

6. artikulua ezarrita dago zergei, gizarte segurantzari eta herri dirulaguntzei lotutako betebeharrak bete beharra.

7. artikulua zehaztuta daude erakunde onuradunek bete behar dituzten betebeharrak. Era berean, bertan nabarmendu dira eskabidearen aurkezpen-dataren osteko hamabi hilabeteetan dirulaguntzen bitartez lortutako lanpostuen beharrezko mantenimendua eta Enpresaren Plana azaltzen duen Memoriaren aurkezpena. Halaber, bertan nabarmendu da destinoa eta aplikazioa lotura-bermeen bitartez bermatu beharra, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Herriko Ogasun Orokorraren Abiaburu Antolatzaileei buruzko Legearen Testu Bateratuan ezarritakoaren arabera.

8. artikulua Dekretura bildutako laguntzen edozein Herri Administrazioetatiko beste batzuekiko bateragarritasuna xedatu du.

9. artikulua ezarrita daude eskabideak aurkezteko era eta epea.

10. artikulua zehaztuta dago Dekretuan ezarritako onuren menpean jarri nahi duten erakundeek normalizatutako eskabidearekin batera aurkeztu behar duten manuzko dokumentazioa.

11. artikulua aipatuta daude eskabideetako akatsak zuzentzeko ezarritako arautegia eta, hala denean, beharrezko espedienteen artxiboa.

12. artikulua zehaztuta dago Dekretura bildutako laguntza-deialdiaren kudeaketa-, ebazpen-, baliabide- eta publizitate-prozedura.

13. artikulua aipatuta dago dirulaguntzak ordaintzeko bide bezala emateari buruzko Ebazpenaren uneko ordainketa bakarra.

14. artikulua aipatuta daude Dekreturako baliabide ekonomikoak eta berauen muga. Artikulu horrek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidetara bidaltzen gaitu.

15. artikulua aipatuta dagoenez, dirulaguntzako baldintzak aldatu ahal dira, haren helburua betetzat emanez gero, eta beste Herri Administrazio batek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko pilaketaren arabera.

16. artikulua aipatuta dago dirulaguntzaren helburua, baldintzak eta xedea ez betetzea eta dirulaguntzaren zenbatekoaren itzultze posiblea. Era berean, artikulu horrek kontutan harturik du abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Herriko Ogasun Orokorren Abiaburu Antolatzaileei buruzko Legearen Testu Bateratuan ezarritakoa.

17. artikulua aplikatu ahal diren arauak bete ezean emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura araupeturik du.

Xedapen Gehigarri Bakarrean aipatuta dagoenaren arabera, Dekretura bildutako laguntza-araubidea Europako Batzordeak ezarritako "de minimis" erregelaren menpean dago. Xedapen horrek Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari ahalmena eman dio erregela betearazteko.

Lehenengo Bukaerako Xedapenak Dekretuaren kontra aplika daitezkeen baliabideen prozedura ezarri du.

Bigarren Bukaerako Xedapenak Dekretuan ezarrita ez dauden gauzetan aplikatu ahal den araubide ordeztalea ezarri du.

Hirugarren Bukaerako Xedapenak Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko buruari ahalmena eman dio Dekretua garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak hartzeko.

Laugarren Bukaerako Xedapenak zehazturik duenez, Dekretua berau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

III.- OHARRAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak nabarmentzen duenez, Kontseiluari eratzikitako eta 9/1997 Legea behar bezala bildutako eskumenak oinarri harturik, beharrezkoa da Erakusketaren laugarren ahapaldian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko buruak entzundako kontsulta-organo bezala berariaz aipatzea.

IV.- ONDORIOAK

Kontsulta-organoa den Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Enplegu Sorgune Berrietan bilduriko enpresak martxan jartzeko laguntzak arautu dituen Dekretuaren tramitazioa egokietsi du.

Bilbon, 1998ko uztailaren 22an

OE Burua,

Javier Mongelos Oquiñena

Idazkari nagusia,

Javier Hernández Bilbao